



Eskola
Irakorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IBERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ELKARBIZITZA PLANA

2018-2022

(2018.urtean egindakoa)



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



AURKIBIDEA:

1. SARRERA:	2
1.1 Eguzkitza BHI-ren ezaugarriak.	2
1.2 Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko lotura	4
2. ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA	
3. ELKARBIZITZAREN HELBURU OROKORRAK	
4. IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA	
5. ELKARBIZITZA-HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK	
5.1. Elkarbizitzaren Behatokia	
5.1.1 Behatoki batzordearen osaketa	
5.1.2 Behatokiaren ezaugarriak	
5.1.3 Jazarpen kasuaren esku-hartze eta ebazpen prozesua	
5.2. Ikasleen Batzordea	
6. ELKARBIZITZA JARDUTEKO IRIZPIDEAK	
7. JARDUERA OSAGARRIAK	
8. ELKARBIZITZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA	
9. GARAPENA ETA JARRAIPENA	
9.1 Elkarbizitza Planaren jarraipena	
9.2 Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentziorako planaren jarraipena	
10. ELKARBIZITZA PLANAREN EBALUAZIOA	



1. SARRERA:

1.1. Ikastetxearen ezaugarriak:

Eguzkitza BHI, Irunen kokatuta dago, eta DBH, eta AAT eskaintzen dira. . DBH- ko lau mailak ditugu eta kurtsoaren arabera 3 edo 4 lerro ditugu. Aukera eta ikasletoa dugunean DC taldea ere izan ohi dugu.

Inklusibitatea gure marka eta helmuga da. Gizarte aniztasun baten mikrokosmosa gara eta gure ikasleto eta hezkuntza komunitatean islatzen da. Jakin badakigu, hau erronka bat dela eta beldur barik horri heltzen diogu hobetzearen.

Eguzkitza BHI- ikastetxeak eskola jasangarriaren ziurtagiria lortu eta aurren berriz ere bermatu du, 2018-2019 ikasturtean. Gure eginkizuna izateaz gain gure ikasletoa jasangarritasunaren printzipioetan hezi nahi ditugula

Gure apustua, berriztan datza, eta horregatik, urtero urtero, proiektu desberdinak garatzen ditugu, bai elkarbizitzarekin erlazionatutakoak (hezkidetzta, bizikidetzta, patioaren behaketa), teknologia berrieekin lotura dutenak (STEAM proiektua,...) eta baita ingurugiroarekin bat egiten dutenak ere (Agenda 21, Bidasoan Bixi, Zisare Proiektua;...).

Argi dugu, guztion lana behar beharrezkoa dela, eta horregatik, ikasle, irakasle, guraso eta institutuko komunitate osoak parte hartzen du gure hezkuntza Proiektuan.



Elkarlana bultzatzearen gure ideiak partekatzeko modu anitzagoak bideratu ditugu: bilerak, galdetegiak, ...

Hizkuntzak gure harremanetarako bidea den honetan garrantzia handi du. Hori dela eta, hizkuntza normalkuntza mintegitik euskara bultzatzen da. Aldi berean, atzerriko hizkuntzen mintegiak, euskera mintegiak eta gaztelera mintegiak elkarrekin hizkuntzen trataera integrala eta integratua jorratzen ari dira. Horretarako hizkuntza proiektua sortu eta aldiro berrikusi eta hobetzeko pausuak emango dira. Ildo berdinetik jarraituz, klaustroak Irakurketa eta Idazmen Plana martxan jarri du, gure ikas-komunitateen beharrei erantzuteko.

Orientatzailearen lanak, garrantzi handia du, eta honek ikasleekin egiten duen lana tutoretza orduen bitartez gauzatzen da. Aldi berean, euren etorkizunerako bideak aurkitzen laguntzen die orientazio saioen bidez. Lan hau, ikasleekin egiteaz gain familiekin eta klaustroarekin ere gauzatzen da. Guztiok batera gure ikasleentzako bideak eraiki ditzagun.

Azkenik, argi dugu ere, ez direla bakarrik ikasleak, ikaste prozesu baten barruan egon behar dutenak, irakasleek ere formakuntza jarrai baten parte izan behar dute, eta horregatik, urtero, kurtsoan zehar, irakasleek ikusten dituzten beharrei aurre egiteko, formakuntza ikastaroak egiten dituzte.

Ikasleak talde ezberdinetan banatzen dira hurrengo irizpideen arabera:

- Hautazko eta Aukerazko esparruen arabera
- DBH-ren hasterakoan Lehen Hezkuntzako irakasleen proposamenak
- Aurreko ikasturtearen irakasle taldearen iritzia

Gela barruan taldeak egin beharreko ekintzaren arabera osatzen dira: teknologia,



laborategia, plastika, amankomuneko hausnarketa, talde txikian nahiz handian. Kontutan izaten den helburua denek ahalik eta motibatuen lan egin dezatela da.

1.2. Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko lotura:

- AJA

Ikastetxearen antolakuntza eta jarduera araudia da. Gure helburua Elkarbizitza eskubideetan oinarrituta izatea da. Horretarako argi zehazten da zer jokabide ez diren nahi. Denok dakigu nola funtzionatuko dugun eta zer gertatuko den; horrek sendotasuna eta fidagarritasuna ematen dizkio prozesuari. Nola funtzionatuko dugun jakiteak eta, beraz, arrazoiak eta ondorioak jakiteak, jokabide jakin batzuk izateko asmoa kentzen die ikasle zenbaiti. Beste batzuetan asmoa burutik kentze hori gertatzen da egiaztatzen dutenean beste pertsona batzuei kalte egiten dien jokabide batek bere ondorioa duela.

Berdina gertatzen da egiaztatzen dutenean jarrera kolaboratzaile batek ondorio positiboak dituela. Eta irakasleei segurtasuna ematen die zerbait gaizki doanean zer egingen dugun argi eta zehaztasunez jakiteak. Inprobisaziorako tarterik ez dugu uzten ia eta, ondorioz, ikasleak ere seguruago sentitzen dira.

Beti azalduko dugu zer egingen dugun arauak hausten badira. Ez baditugu ondorioak ezartzen, pertsona askorentzat (nerabe zein helduentzat) zaila da funtzionamendu mota honekin bat egitea, ordenatua eta errespetutsua izateaz gain askatasunez garatzen baita. Ondorioek laguntzen dute erantzukizuna garatzen. Ez dira zigorrak edo mendekuak baizik eta, aldeztatik taldearen beharrak jakinda ere, ikasle batek izatea erabaki duen jokabide jakin baten ondorio logikoak. Taldearekin konprometitutako pertsona kolaboratzailea izaten ikasteko aukerak dira.



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



- AGENDA 21

- HEZKIDETZA:

Eguzkitza BHIko Hezkuntza Proiektuan jasota dagoen bezala, ikastetxeak, ikasleen arteko harremanak berdintasun iraunkorretik bultzatzeko konpromisoa dauka, hezkuntza ez sexistaren alde eginez eta horregatik, bai curriculumean eta baita arlo ez curricularrean ere, genero ikuspegia txertuta dugu. Horrela, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatuko dugu eta sozializazio horrek, nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetuko du identitate propioaren eraikuntzan.

2015 Ikasturtean, gure institutuan berdintasuna eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko Hezkidetza proiektua hasi ginen. Hori dela eta, genero indarkeria ekiditzen, kasuak detektatzen eta biktimei laguntzarik egokiena ematen ahalegintzen aritu ginen Hezkidetza proiektu honetan hiru ikasturte hauetan, 2015tik 2018ra.

2015-2016 ikasturtean, sentsibilizazio eta diagnostiko fasean murgildu ginen ikastetxearen egoera ezagutu ahal izateko. 2016-2017 ikasturteetan, ikastetxea sentsibilizazio fasearekin jarraitu zen, emaitzen hausnarketarekin, eta planifikazio fasean sartu zen. Aurreko fasean lortutako informazioaren antolaketa eta planifikazioa aurrera



eraman genuen. 2017- 2018, Hezkidetzaren proiektuaren azken urtea zenez gero ebaluazio fasean sartu ginen alde batean, eta bestalde, Hezkidetzaren jarraipena ziurtatu behar genuen gure ikastetxean, hau da, etorkizunari begira, berdintasuna bultzatzen jarraitzeko.

Aurten, Bizikasi proiektua abian jarri da gure ikastetxean eta proiektu honekin ikasleek seguru, babestuta eta partaide sentitzea lortu nahi dugu. Eta Hezkidetzari ikasgai desberdinetatik eta tutoretzatik, jarraipena ematen diogu curriculum, programazioak eta jarduerak bitartez.

- **HEZKUNTZA PROIEKTUAK:**

Gure jarduera nagusia ikaskuntza-irakaskuntza prozesua denez, prozesu horretan parte hartzen duten ikasleen nortasuna garatzeko aspektu akademiko eta hezigarriak eta komunitatearen partaide guztien arteko harremanak landu nahi ditugu.

Ikasleek bakearen kulturaren, parekidetasunean, errespetuan (pertsonakiko, Kulturarekiko eta ingurunearekiko) eta elkartasunean oinarritutako hezkuntza jasotzen jarraitzea. Honek ongizate pertsonala nahiz taldekoa dakarrelako eta ikasleei curriculuma aurrera eramaten eta eskolako inguruan positiboki integratzen laguntzen duelako. Horretarako, beharrezkoa dugu Elkarbizitza plana aurrera eramaten jarraitzea gure Ikastetxeko beste Proiektu guztiekin batera kide guztien ongizatea bermatuz eta gizarteratzeko eta herritar aktiboak izateko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeko baliabideak eskainiz.

- Curriculum Proiektua: metodologia eta aniztasunaren arreta atalean bat dator plan honetan definitutako elkarbizitza ereduarekin.
- Tutoretza Plana: Ikasleen eskolatzeko aldi osoan, orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzen dituen egitura da. Elkarbizitza



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik oinarritzko gaitasunak lortzea da orientazio eta jarraipen ekintza horien helburua.

- Harrera Plana: Ikasle berriak ikastetxera egokitzen laguntzeko helburua duen jarduera protokoloa da. Planak azpi-prozesuaren ekintzak, arduradunak, beharrezkoak diren materialak eta denboralizazioa xedatzen ditu eskola komunitatearen pertsonen integrazio egokia lortzeko.

- JANGELA TXOSTENA:

Jangela Institutuak eskaintzen duen zerbitzua izanda, elkarbizitzarako arauak gainontzeko ikastorduetan betetzen diren neurrian, jatorduetan ere, bete beharko dira.

Kasuen arabera, aipatutako arauak beta ezean, epe batez edo betirako, jangela zerbitzua erabiltzeari utziko zaio.

Eguzkitza Institutuan elkarrekiko begirunea ezinbestekotzat jotzen dugu irakasle, monitore eta ikasleen arteko harremanak ahalik eta egokienak izan daitezen.

Jarraian kontuan izan beharreko arauak zerrendatzen ditugu:

1. Jangelan lan egiten duten pertsonetik jarraera errespetuzkoa izango da haiek esandakoa betetzen. Era berean ikasleen arteko harremanak errespetuzkoak izango dira,
2. Jangelan lasai eta korrika egin gabe sartuko da, bakoitza bere lekuan eseritzen, guztiok bukatu arte altxatu gabe.
3. Giro lasaia eta atsegina lortzeko karraxi egin gabe hitz egiten saiatuko gara, era egokienean bazkaldu ahal izateko.
4. Ez da inongo janaririk jangelatik aterako.
5. Bazkaldu ondoren ezin izango da Institututik atera.



6. Ikasleek prestaketa eta txukunketa lanetan lagunduko dute beraien txanda ailegatzean.

7. Institutuko material nahiz instalazioarekiko errespetuzko jarrera mantenduko da.



2. ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA:

Elkarbizitza Planak ikastetxeko elkarbizitzaren diseinua izan nahi du eta organo eskudunek adostutako proiektu eta planekin bat datorren garapen eta kudeaketa bideak ezarri eta sistematizatzeko dituen.

3. ELKARBIZITZAREN HELBURU OROKORRAK:

3.1. Elkarbizitza-giroarekin loturiko helburuak:

- Ikastetxean elkarbizitza positiboko giroa sortzea, non komunitateko kide guztiak parte direla sentituko duten.
- Gatazken tratamendu egokia eta haiek modu baketsuan konpontzen ikasteko estrategiak erabili.
- Modu adostuan, jokabide desegokien aurkako irizpideak eta jarduteko jarraibideak lantzea, ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretuaren arabera.

3.2. Inplikazioarekin eta partaidetzarekin loturiko helburuak:

Gure ikastetxeko irakasleek lan-ibilbide luzea dute elkarbizitzaren arloan:

- Irakasleen partaidetza
- Pedagogia Batzorde eta Behatokiaren bidez, horiek ezartzen baitituzte gerora klaustroak eta OOGk onartuko dituzten elkarbizitza arloko oinarrizko jarraibideak.

3.3. Hezkidetzarekin lotutako helburuak:

- Inolako ekintza diskriminatzailearik gertatzen ez den hezkidetza-ikastetxea izango da.



3.4. Baloreekin lotutako helburuak

Errespetua, tolerantzia, elkartasuna eta lankidetzaren balio partekatuak izatea eta ekintza jakin batzuetan islatzea.

3.5. Jasangarritasunarekin lotutako helburuak:

4. ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA:

Ikastetxeko elkarbizitzaren egoerari buruzko datuak jasotzeko prozesuan irakasleen eta bestelako langileen artean formazio saioak eratu ziren, familien eta ikasleen artean errubrikak burutu ziren eta dagoeneko ezarri ziren jarduerak egin dira. Hori da:

Behatokiaren bilerak

Ikasleen batzarra

Ikasgelako bilerak

Tutoretza Plana

Irakokizunen postontzia ikastetxearen sarreran

Zuzendaritza-taldearen, irakasleen, irakasleak ez direnen, familien arteko komunikazio-kanalak zabaltzea: korreo elektronikoa, intranet, web orrialdea, bloga

4.1. Prebentzio lana:



Elkarbizitza Plan honetan ikastetxean egiten dugun orok eragina duela elkarbizitza positiboaren lanketan. Gorago elkarbizitza positiboa jorrazteko berezko egiturak azaldu ditugu, baina kontuan hartu behar dira ere ikastetxean garatzen diren beste hainbat:

- Alderdi curricularra: gorago aipatu dugu arlo guztietako programazioetan gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapenerako zer egingo den zehaztuta dagoela. Beraz, irakasle guztiek onartua dugu eremu honen garapenarekiko dugun ardura. Hezitzaile gara hitzaren zentzurik zabalenean, eta sinesmen hori funtsezkoa da elkarbizitza positiboa modu sistematiko eta kontzientean jorrazteko.
- Eskola inklusiboa: elkarbizitzaren bideak aniztasunaren trataerara eraman gaitu, eta honek eskola inklusiboaren sinesmenera.
- Tutoretza plana: 18-19 ikasturtean egindako elkarbizitza planaren helburuetariko batek tutoretza plana zuen hizpide, bere lan ildo nagusia elkarbizitza positiboaren sustatzetik etorri behar baitu.
- Ikasketa eta “Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako hezkuntza” irakasgaia elkarbizitza positiboa sustatzeko beste aukera bat bezala bizitzen dugu. Ikasleek euren inguruari buruzko hausnarketa egin eta eurek zertan eragin dezaten pentsa dezatela bultzatzen da, ikasten duten aldi berean ingurua hobetuko duen zerbait egiten dutelarik. Talde bakoitzak proiektu bat garatzen du, eta proiektu guztiak denonak dira. Jarrera prosozialak garatzen dira erabat, elkarbizitza positiboaren bidean.
- Ekintza osagarriak: orientazio mintegitik hainbat ekintza osagarri antolatzen da hitzaldi edo tailer moduan ikasleen garapen integrala eta elkarbizitza positiboa bultzatzen dutenak: drogei buruzko tailerra, hezkuntza afektibo-sexuala, hezkidetzeta... Urteko Planean jasota daude hauek guztiak.
- Inguruarekin elkarlana: eskolak inguruarekin lan egin behar duela da gure sinesmenetariko bat. Gure lana ingurura zabaltzeko behar dugu eta ingurua eskolara ekarri. Horretarako lan eremu ezberdinak jorratzen dira:



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



- Irungo Plan Hezitzailea garatzeko talde eragilean gaude.
- Beste ikastetxeekin elkarlanean aritzen gara.
- Udaletxeko gizarte zerbitzuekin eta kale hezitzaileekin harreman estua du orientatzaileak eta zuzendaritza taldeak.
- Hainbat instituzio eta elkarteekin harremana izaten dugu haien ikuspuntua eta espazialistuen iradokizunak jasotzeko eta erantzun aproposagoak ematen ikasteko.
- Neurri zuzentzaileak: 2008ko dekretuaren zentzuarekin bat egiten dugu erabat. Arautegia honen arabera berritu zen 18-19 ikasturtean eskola komunitate osoaren partaidetzarekin, eta kutsu hezitzailea dauka erabat.

5. ELKARBIZITZA-HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

5.1. Elkarbizitzaren Behatokia

5.1.1. Behatoki batzordearen osaketa

Aitziber Gómez.	Zuzendaria
Pablo Palacios	Orientatzailea
Isabel Beorlegi	Irakaslea
Asier Izaguirre	Jangelaren Arduraduna
Leire Lete	Guraso- Jangelako langile
M. ^a Eugenia Vázquez	Ikaslea
Asier Romero	Ikaslea



5.1.2. Behatokiaren ezaugarriak:

Behatokia ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Bere xedea harreman positiboak eraikitzen laguntzea da. Bere ekimenak hiru esku-hartze maila jasotzen ditu: Prebentzioa, esku-hartzea eta ebaluazioa.

Lehen mailari (prebentzioari) dagokionez, nabarmentzekoak dira berariazko prestakuntza, eta ikastetxe bakoitzean talde dinamizatzaile bat sortuko da kide hauek osatuta:

- Zuzendaritza taldeko kide bat.
- Orientatzailea.
- Bizikidetzar arloaz arduratzen den irakaslea.
- Ikasleen ordezkari bi.
- Guraso edo arduradun legal bat.
- Garraio, jantoki eta APZren ordezkari bat.
- Inguruko erakunde eta entitateen ordezkari bat.

Talde honek gidatuko eta koordinatuko du jazarpen kasuak konpontzeko prozesua, eta beronek gidatuko ditu ikastetxean elkarbizitza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak.

5.1.3. Jazarpen kasuaren esku-hartze eta ebazpen prozesua:

Protokolo

- a. Balizko jazarpen kasu baten aurrean informazioa eta datuak jaso.
- b. Esku-hartze plana diseinatu eta martxan jarri:

- Behaketa prozesua gauzatzeko.
- Behaketari ekiteko eremu eta agente desberdinak koordinatu.
- Jasotako datuen triangulaziotik abiatuta kasuaren azterketa.
- Jokabide erasotzaileak dituzten ikasleekin esku-hartzeko
- Ikusleekin esku-hartzeko
- Familiekin egoera aztertzekeo
- Irakasleria eta irakasle-tutoreari aholkularitza eskaintzeko.
- Kasua ebazteko bideratuta dauden tresnen kudeaketa.

5.2. Ikasleen Batzordea:

Behatokiaz gain, ikastetxeetan izan daitezkeen jazarpen kasuen kudeaketan erreferentzia izateko beste egitura bat sortu da: Ikasleen Batzordea. Talde honen partaideak dira:ikasleen ordezkioak. Gure ikastetxeko ikasleak, euren ibilbide hasiera honetan zuzendaritzako edota bizikidetzako kide bat gonbidatzen dute bilerei aurre egiteko.

Talde honetako partaideak dira arazoei irtenbidea topatzen saiatuko direnak. Funtzionamendurako hainbat neurri ere elkarrekin eztabaidatu eta adostatzen dituzte.

Ikastetxerako nahitaezkoa den batzordea dugu hau. Ikasleek euren garrantziaz jabetzen dira eta ikastetxea berea delakoan hobetu, goxotu eta aurrera eraman nahi dute. Ideiak barra-barra sortzen dira baita iritziak ere. Horiek guztiak jasotzen dira eta onuragarriak direnak burutazioetatik bereizten dira, errealitatean gauzatu daitezkeen ideiak, ekintzak eta jarduerak aurrera eramateko.

6. Jarduteko irizpideak

- Garrantzia ematen diogu gatazkei aurrea hartzeari. Gatazka ez da zerbait ezkorra eta ekidin beharrekotzat hartzen. Elkarbizitzak berezkoa du gatazka; beraz, irakasleriari eta eskola-komunitateko kideei baliabideak ematen dizkiegu gatazkek modu eraikitzailean konpontzeko.



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



- Tutoretza-jarduerako planak lehentasuna izango du: banakako tutoretza eta taldeko tutoretza, talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala eta gizarte-trebetasunetan.

- Bullying-a eta ziberbullying-a berariaz landuko dira.

- Eskola-komunitateko talde guztientzako (Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei) zuzenduriko prestakuntza-planak eta/edo hitzaldiak garatuko dira urtero, besteak beste, gizarte-trebetasunak lantzeko, emozioak kudeatzeko...

Ikastetxean, ohiko eta eguneroko ekintza akademikoez gain, arautu eta ezaraututako ekintza desberdinetan parte hartzen da. Ekintza horien artean Agenda 21, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua eta “Eguzkitza Prest” aldizkaria daude, adibidez.

7. Jarduera osagarriak

Hauetz gain, ikastetxeak “Arautugabeko elkarbizitza” ere lantzen du ikastetxetik bertatik sustatutako hainbat ekintza esanguratsu eta eraginkorretan. Izan ere, egon badaude Lehen Hezkuntzakoekin batera prestatu beharreko jaialdiak; hala nola, San Tomas eguna, Inauteriak edo Eguzkitza BHI eguneko prestaketak eta ospakizuna.

Bestalde, Aipa daitezke, Beldur Barik tailerrak eta lehiaketa, Genero Indarkeriaren aurkako eguna, Euskararen Eguna, Emakumearen eguna, ikasketa bidaiarako lan anitzak, Euskara Motibazio Saioak, IKT, Hezkuntza afektibo-sexuala eta Drogomenpekotasunaren prebentzioa, esaterako.

Arestiko ekintza guztiek komuneko xede nagusi bat dute banaka izan ditzaketen helburu zehatzagoez gain. Azken batean, eguneroko bizitzak dakarren elkarbizitzaren eraginez sortzen diren arazoan aurrean, konponbiderako tresna, gaitasun, jarrera, motibazio eta konpromisoak sustatu nahi dira. Horiek lantzeko eta indartzeko aukera eta aitzakia polita eskaintzen dute.

8. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena

URTEKO FUNTZIOAK



Estamentu guztien, partaidea izatearen sentsua bultzatzea(bereziki ikasleena).
Beste erakunde eta inguruko organizazioekin lankidetzatza sustatu, bizikidetzatza positiboa eta kooperazio-kulturaren Aldea.
Egunekotasunaren aurrean sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko, ekintza-protokoloak proposatu.
Berlín artero tratatu txarrak edita indarkeriaren balizko gertaerak igarri (triptikoen hedapena, galdeketak, soziogramak, test...)
Harremanak sendotzeko, gatazkak eraldatzeko, ETA bizikidetzatza osasuntsu bar eratzeko, egonezinak, iradokisunak eta proposamenak jason (estamentu guztietatik) eta bideratu.

URTEKO GAIEN ZERRENDA
Elkarbizitza positiboa ereduak eman berdinen arteko harremanak hobetzeko eta genero berdintasuna bermatzeko.
Nesken eta mutilen arteko harremanak. Genero berdintasuna badago?
Jangela
Ikastetxeko komunitate kidei ezagutu arazi behatokiaren lana.
Ikastetxeko proiektuetan (elkarbizitza edota hezkidetzatza) parte hartu.
Ikastetxean egiten dena, elkarbizitza eta hezkidetzatza lantzeko, ikastetxetik kanpo zabaldu, herri mailan

- Ikasleen arautegia osatzeko zeuden dokumentuak aurkeztu, eta hotaz oinarrituz, AJA gauzatu da aurten.



- Ikastetxearen Elkarbizitza hobetzeko gai zerrendaren hautaketa egin da. Eta besteak beste,
patioaren berrikuntza aztertu da:

Helburuak:

Patioa dibersifikatzea inklusiboagoa izateko.

Naturarekiko errespetua bultzatzea.

Zonalde berriak::

Erlajatzeko (bankuekin, mahaiak, paperontziak. Lorategiak...

Zirkuito bat korrika egiteko, patinez...

Rokodromoa.

Frontoia.

Areto bat estalita: dantza, musika, antzerkia ... egiteko.(Agian gimnaziotik paraleloki saskibaloian dagoen tokian).

Hobekuntzak:

Garbiketa areagotu batez ere asteburu ondoren udaletxea inplikatu gehiago.

9. Garapena eta jarraipena

9. 1 Elkarbizitza Planaren jarraipena

Jarduera horien garatu eta jarraitzeko arduradunak finkatuko dira, eta baita denborak, baliabideak eta jarraipen eta lorpen adierazleen zehaztapena ere.

Elkarbizitza Planeko helburuak modu arrakastatsuan lortzeko komunitateko kide guztiek ezagutu behar dituzte. Horregatik:

a) Ikasturte-hasierako bilerak. Ikasturtearen hasieran familiekin, ikasleekin,

klaustroarekin, guraso elkarrekin eta abarrekin izaten diren bileretan, hainbat gairen artean, Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren funtsezko zenbait alderdi eta haien urteko zehaztapenak zabalduko dira.



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



b) Urtero, kultura eta ospakizun jardueren artean Elkarbizitza Planeko helbururen bat garatzea bideratutako jarduera bat, gutxienez, egingo da.

d) Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da, eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzean.

9.2 Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentziorako planaren jarraipena Formakuntza

Ikasle zuzenduta	Beldur Barik tailerrak 2.mailan Udaletxearen Plenoa 4. mailan Bulying-a 1. Zikloan Ciberbulying-a 4. mailan
Irakasle zuzenduta	Bizikidetza
Gurasoei zuzenduta	Ciberbulying-a Drogomenpekotasunari aurre egiten Bidegorri Gurasoen elkarte antolatutako hitzaldiak

INPLIKAZIO JARDUERAK:

A-25 Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako eguna

.- Azaroaren 25an Genero indarkeriaren aurkako eguna dela eta, azaroak 23ean, ikastetxe desberdinetatik Irungo udaletxearen aurrean kontzentrazio batean bildu gara, hezkuntza komunitatetik indarkeriari ezetz esateko. Gizarte guztian genero indarkeriaren aurkako kontzientzia eta jarrera pizteko asmoz. Pankarta bat egin eta eraman dugu, eta txartel moreak eraildako izenak aipatzen dituen.



<https://hezkidetzaeguzkitzabhi.wordpress.com/2018/11/29/a-25-emakumeenganako-indarkeriaren-aurkako-eguna/>

- Nagore 10urte kartela plastikako ikaleek egin dute eta signatu egin dugu.
- Irungo "Beldur barik" lehiaketan 1. Saria jaso dugu.
- Nagore dokumentala ikusi dugu eta Asun Casasola izan da gure artean.
- A-25ko jarduetak eta idazlanak Eguzkitza BHIko Web orrian eta aldizkarian argitaratuta.
- Asun Casasola ipuin lehiaketan parte hartu dugu bi ipuin kolektibokin, Euskara, Gastelera eta Baloretik bideratuta.

Otsaiak 14 "San Balentin Berdingarria" ospatu genuen eta ikasleek euskerazko eta gastelerazko idazlanak idatzi zituzten:

<https://hezkidetzaeguzkitzabhi.wordpress.com/2018/01/16/san-balentin-berdingarri/>

Martxoak 8

- MURALA-PUZZLEA:
 - Ikastetxeko talde guztiek emakume eta gizonen argazkiak bilatu zituzten non emakume eta gizon agertuko ziren jarduera berdinarik egiten. Gero, mailaka puzzlearen zati bat osatu eta, horrela, mural-puzlea joan zen osatzen. Hau da erabili dugun lelo inklusiboa: Berdin gehiago da = + .
- Pankarta: Ikastetxearen fatxadetan ikasleek egindako pankarta jarri genuen:

Berdin gehiago da = + (leloa erabiliz)

<https://hezkidetzaeguzkitzabhi.wordpress.com/2019/03/10/martxoak-8-emakumeok-planto/>



.- Maiatzak 17: Bisualizatu LGTBI eta eztabaidatu klase guztietan.

<https://hezkidetzaeguzkitzabhi.wordpress.com/2019/05/08/maiatzak-17-aske-izan/>

10. Elkarbizitza Planaren ebaluazioa

Ikastetxeko zuzendaritzak eta Elkarbizitzaren Behatokiak alderdi hauek aztertuko ditu:

- a) Hezkuntza-komunitateak zenbateraino ezagutzen duen Elkarbizitzaren Plana. Kontuan izan behar da kideak denborarekin aldatu egiten direla.
- b) Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako prozeduren eraginkortasuna. Elkarbizitzaren Behatokiak proposatu dezake erabiltzen ari diren zabalkunde- eta sentsibilizazio-prozedurak bere horretan mantentzea, edo beste batzuk proposatzea.
- c) Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera. Zuzendaritzak ikastetxeko elkarbizitza eten duten egoeren berri emango dio Behatokiari.
- d) Elkarbizitza Plana eguneratu egingo da testuinguruaren baldintzak aldatzen badira, eta, erabakitzen bada, datu objektiboetan oinarrituz, ez dela bere eginkizunak behar den neurrian betetzen ari.

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da ikasturterako planifikatutako helburu eta jarduerak kudeatzeaz, eta Elkarbizitzaren Behatokiari emango dio kudeaketa horren berri. Ebaluazio hori Urteko Memorian jasota geratuko da.

Ikasturteko memorian proposaturiko helburuen lorpen-maila aztertuko da; ondorioak aterako dira, eta hurrengo ikasturteko helburuak ezartzeko oinarri izango diren hobekuntza-proposamen berriak proposatuko dira.

Cuadro de plan

Ikasle zuzenduta	Beldur Barik tailerrak 2.mailan Udaletxearen Plenoa 4. mailan
------------------	--



Eskola
Iraukorraren
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

STEAM
euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA LIBERTASIA
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

	Bulying-a 1. Zikloan Ciberbulying-a 4. mailan
Irakaslei zuzenduta	Bizikidetza
Gurasoei zuzenduta	Ciberbulying-a Drogomenpekotasunari aurre egiten Bidegorri Gurasoen elkartea antolatutako hitzaldiak